

## GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO AMBIENTE

ASUNTOS SOCIALES FAMILIA JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y COMUNICACIONES

VIVIENDA Y ORDENACION DEL TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Asturias eta Vianako printze-printzesak 2011ko Vianako Printzea Sariak banatzeko ekitaldiaren buru izan dira Baluarten

*Sariak Faustino Menéndez Pidal heraldistak, Manuel Elkin Patarroyo zientzialariak eta Iriscom enpresak lortu dituzte*

Martes, 31 de mayo de 2011

Felipe eta Letizia Asturias eta Vianako printze-printzesa berorren gorentasunak Kulturaren, Elkartasunaren eta Mendekotasunaren 2011ko Vianako Printzea Nafarroako Nazioarteko Sariak banatu diren ekitaldiaren buru izan dira gaur arratsaldean, Baluarte Nafarroako Batzar Jauregi eta Auditorioan. Sarituak, hurrenez hurren, Faustino Menéndez Pidal heraldista, Manuel Elkin Patarroyo zientzialaria eta Iriscom enpresa izan dira.



Patarroyo, Menéndez Pidal, berorren gorentasunak, Pedro Palomo eta José Mari Arrazola

Printze-printzesak 18:00ak aldera iritsi dira Baluartera, eta, han, Miguel Sanz Sesma Nafarroako Lehendakariak, Ramón Jauregui Espainiako Presidentetza ministroak eta Foru Erkidegoko agintari nagusiek, hau da, Elena Torres Nafarroako Parlamentuko presidentek, Elma Saiz Gobernuak Nafarroan duen ordezkariak eta Yolanda Barcina Iruñeko alkateak, agurtu dituzte. Ondoren, Felipe jaunak eta Letizia andreak Vianako Printzea Sarien epaimahaietako buruen agurrak jaso dituzte, hots, Jürgen Unterman (kultura), Miguel Induráin (elkartasuna) eta Luis Rojas Marcosenak (Mendekotasuna).

Juan Ramón Corpas Mauleón Kultura eta Turismo kontseilariak, María Isabel García Malo Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak, Txomin García Euskadiko Kutxako presidentek eta María Ibáñez Caja Navarra fundazioko presidentek ere berorren gorentasunak agurtu dituzte.

Eraikineran sartu ondoren, printze-printzesak Baluarteko areto nagusira sartu dira agertokiaren ondoko atetik. Hantxe banatu dira sariak, mila gonbidatu ingururen aurrean. Ekitaldian azpitoluak jarri

dituzte eta zeinuen mintzairako interpretazioa egin da. Sariak banatu aurretik, Espainiako eta Nafarroako ereserkiak entzun dira, eta, horien ostean, Nafarroako Lehendakariak hitz egin du.

Kulturaren Vianako Printzea Saria, eman duten lehenengoa, Faustino Menéndez Pidal heraldistarentzat izan da, egin duen lana azaltzeko jarri duten bideo labur bat ikusi ondoren. Felipe printzearen eskutik saria jaso eta gero, eskerrak emateko hitz batzuk esan ditu Menéndez Pidak.

Jarraian, Elkartasunaren Vianako Printzea Saria eman diote Manuel Elkin Pararroyo zientzialariari, egin duen lanari buruzko bideo bat ikusi ostean. Patarroyok ere labur eskertu ditu ekitaldira joan direnak.

Azkenik, Mendekotasunaren Vianako Printzea Saria eman dute. IRISCOM enpresa zein proiektua ere bideo batean azaldu dute saria jaso aurretik. Saria Pedro Palomo eta José María Arrazola proiektuaren kide sortzaile eta zuzendariek hartu dute. Felipe jauna berorren gorentasunaren eskutik saria jaso ondoren, azken bi sarituek eskerrak emateko hitz batzuk esan dituzte.

Ekitaldia amaitzeko, musika tarte bat izan dute eta, ondoren, Felipe jauna berorren gorentasunak hitz batzuk eskaini dizkie sarituei.

Ekitaldiaren amaieran, berorren gorentasunek argazki bat egin dute sarituekin eta Baluarteko areto nagusitik atera dira.

Gero, gonbidatuekin pribatuan hitz egin eta taldeko argazkia egin dute lehen solairuan dagoen barruko terrazan sarituekin, agintari nagusiekin, epaimahaikideekin eta erakunde babeskeetako ordezkariekin. Jarraian, berorren gorentasunak erakusketa aretora sartu dira, eta, han, gonbidatuen taldearekin batera janaurrekoa egin eta haiekin hitz egin dute.

Gaueko bederatzia aldera, berorren gorentasunek Nafarroako Lehendakaria agurtu eta handik joango dira.



Berorren gorentasunen amaierako taldeko argazkia sarituekin, gaur eman diren hiru sarietako epaimahaikideekin eta ekitaldian izan diren agintariekin


## Galería de fotos



Asturias eta Vianako printzea Faustino Menéndez Pidal saria ematen



Manuel Elkin Patarroyo Elkartasunaren Vianako Printzea Saria jasotzen



Felipe de Borbón jauna Iriscom proiektuaren sustatzaileei saria ematen



Printze-printzesak ekitaldiko mahaiaren buru izan dira



Sanz Lehendakaria, sarituen aurrean egin duen mintzaldian



Felipe printzea, egin duen mintzaldian



Felipe de Borbón jauna eta Letizia Ortiz andrea Baluarteren kanpoaldean elkartu diren herritarrak agurtzen



Berorren gorentasunak, ekitaldiaren hasieran